

EUSKADIKO GAZTERIA PANDEMIAREN GARAIAN

Online monitorizazioa
(2020ko martxotik 2021eko maiatzera arte)

[\(Txosten osoa gaztelaniaz kontsulta daiteke\)](#)



IKERKETAREN ZERGATIA

Pandemiaren garaia osoan gazteak izan dira egoera horrek gehien kaltetu dituen kolektiboetako bat. Besteak beste, eskolak emateko ereduak aldatu dira, gizarte-eta talde-loturak galdu dituzte, eta araudiak ez errespetatzea leporatu zaie.

Protagonismo hori kanal digitaletan islatu da, eta horietan gazteen kolektiboaren eta pandemian izandako jokabidearen irudia edo irudikapena eraiki da.

Hori dela eta, Gazteen Euskal Behatokitik garrantzitsu iruditu zaigu garai honetan kanal digitaletan Euskadiko gazteei buruz esan dena aztertzea: kantitatea eta mamia (gaiak, tonua, eta abar).

... ETA HELBURUAK

Aurrekoa kontuan hartuta, hauexek dira ikerketa honen HELBURU NAGUSIAK:

- Identifikatzea zer bilakaera izan duen gazteei buruzko elkarrizketa digitalak pandemian zehar.
- Euskal gazteei buruz kanal digitalek eraiki dituzten irudia eta estereotipoak identifikatzea.
- Elkarrizketa horietan eragin handiena izan duten kanalak eta egileak identifikatzea.

Eta hauek HELBURU ZEHATZAK:

- ELKARRIZKETA. Elkarrizketari dagokionez, bilakaera orokorra aztertu: bilakaera bolumetrikoa hilabetez hilabete, momenturik esanguratsuenak eta gehien zabaldu diren albisteak edo edukiak.
- KANALAK. Elkarrizketa garrantzitsuena gertatzen ari den kanalak identifikatzea (komunikabide digitalak, erreferentziazko blogak eta foroak).
- GAIAK. Identifikatu zeintzuk izan diren gairik garrantzitsuenak: ikasketak, bakardadea, arazo mentalak eta abar.
- EGILEAK ETA “INFLUENCERRAK”. Identifikatu zeintzuk izan diren, gai bakoitzean,³ eragin handiena izan duten egileak.

METODOLOGIA

Euskadin edo Espainiako komunikabideetan Euskadiko gazteei buruz sortutako elkarrizketa guztiak, 2020ko martxoaren 1etik 2021eko maiatzaren 31ra arte, neurtu dira. Horretarako Brandwatch izan da tresna nagusia. Tresna horrek aukera ematen du bilaketa-funtzio konplexuak sortzeko, edukiak kategorizatze eta monitorizazio-panelak denbora errealean sortzeko.

Datu-iturri nagusiak honako hauek izan dira: lineako egunkariak, hedabide orokorrak, hedabide espezializatuak, blogak, foroak eta sare sozialak (batez ere Twitter, atzera begirako analisia ahalbidetzen duelako).

Analisa kuantitatiboa eta kualitatiboa izan da, kontuan hartu baitira aipamen kopurua, iturria, irismen potentziala, kokapen geografikoa, egileak, gaiak eta sentimendua (positiboa, negatiboa edo neutroa).

DATU NAGUSIAK

- ❑ 26.646 aipamen jaso dira.
- ❑ Horietako % 98 sare sozialetatik jaso dira (batez ere Twitterretik).
- ❑ Aipamenen % 82,5 erabiltzaileek egin dituzte.
- ❑ Gai nagusiak hauek izan dira: erantzukizuna eta elkartasuna (% 34) eta gazteengan izandako eraginak (% 31) eta, atzetik, murrizketak eta eteteak (% 15), beldurra eta kutsatzeak (% 14) eta txertoak (% 9).
- ❑ Elkarrizketen bi heren Bilbon kokatu dira.
- ❑ Tonua batez ere neutroa edo negatiboa izan da; aipamenen % 7k soilik dute tonu positiboa.

ONDORIOAK

Gazteei buruzko aipamenen tonua negatiboa izan da

Euskal gazteriarri buruzko online elkarrizketa erabat negatiboa da, bi arrazoi nagusirengatik: alde batetik, kolektibo horren gaineko ondorioak (emozionalak, psikologikoak eta ekonomikoak) negatibotzat jotzen direlako eta, bestetik, iritzi publikoak duen pertzepzioa eta komunikabideetan argitaratu dena gazteen erantzukizun/elkartasun faltari buruzkoa da (konfinamendua haustea, indarkeriazko jokabideak, etab.).

Turko-burutzat hartu izan dira gazteak

Kanal digitaletan, pandemian zehar egindako analisi-aldi honetan, euskal gazteen kolektiboak uste du gizartea (beste belaunaldiak) eta hedabideak, oro har, COVID-19ren agente biderkatzaile izatearen errua bidegabe egozten ari zaiela, eta oso gazte gutxien jokabide arduragabeak gazteen kolektibo osora estrapolatzen direla. Zenbaitetan, gazteen "kriminalizazioaz" ere hitz egiten da, COVID delakoaren hedapenean duten ustezko eginkizunagatik.

Atzera pausoa egon da gazteen ohiko arazoetan

Aldi berean, nolabaiteko pertzepzioa dago euskal gazteen artean dauden arazoak (lan-irteerarik eza, gazteen langabezia, soldata txikiak, emantzipatzeko zailtasunak, etab.) ahaztu ez ezik, okerrera egin dutela pandemian zehar.